



Etxebizitzen salmenta %1,4 hazi zen otsailean

EAEn saldutako etxebizitzak
Urte bakoitzeko otsaila



Iturria: INE.

Otsailean, EAEn erregistratu ziren etxebizitzak salerosketen kopurua %1,4 igo zen aurreko urteko aldi beraren aldean. Horrela, aurreko hilabeteetan jaso ziren balio negatiiboak alde batera utzi dira, gaur egun interes tasak altuak diren arren.

Hoteletako gaualdiek gorantz jarraitzen dute

Hoteletan igarotako gaualdiak
Urte bakoitzeko lehen hiruhilekoa. Milakoak




Iturria: Eustat.

Aurtengo lehen hiruhilekoan, hotel establezimenduetako gaualdiak %9,2 gehitu ziren EAEn aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Zehazki, 1.350.000 gaualdi baino gehiago erregistratu ziren, eta hori da aldi horretarako jaso den erregistrorik handiena datuak daudenetik.



EAEko BPGa %1,6 goratu zen lehen hiruhilekoan

EAEko BPGaren bilakaera
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Eustatek argitaratu berri duen aurre-rapenaren arabera, **EAEko ekonomia % 1,6 hazi zen 2023ko lehen hiruhilekoaren aldean**. Horrela, mantendu egin da aurreko hiruhilekoetan erregistratutako kopuruetan. Era berean, enpleguak bere bilakaera positiboarekin jarraitu zuen, %2,0ko hazkundea erakutsiz aurreko urteko aldi beraren aldean.

Industriaren prezioek behera egin dute berriro

Industria prezioen indizea
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat.

EAEko IPRI indizea %6,5 jaitsi zen martxoan, aurreko urteko hil beraren aldean. Hala, adierazle horrek urte arteko tasa negatiboetan jarraitzen du 2023ko martxotik. Bilakaera horren arduradun nagusiak energia-ren prezioak izan ziren, %24,8 merkatu baitziren.